

An aerial photograph of three individuals using rowing machines in a gym. The machines are arranged in a row, and the users are seen from above. The first person on the left is wearing a white long-sleeved shirt and black shorts. The middle person is wearing a white t-shirt with a rainbow graphic and black shorts. The third person is wearing a black tank top and black shorts. The machines have blue handles and pink footrests. The background is dark, and the lighting is focused on the users and their equipment.

AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK

BERMEOKO UDALA





LOS 17 ODS [...]
SE TRATAN DE UNA
LISTA DE TAREAS
PARA LAS PERSONAS
Y EL PLANETA,
Y DE UN PLAN
PARA EL ÉXITO

*por Ban Ki-moon,
ex-secretario general de la ONU*

Bi arrazoiengatik partekatu gura dugu Garapen
Jasangarrirako Helburuekin daukagun
KONPROMISOA.

Alde batetik, zenbait GJHri zuzenean lotuta
dagoen **COACH AND PLAY**ren jarduerari
gardentasuna emateko.

Eta, bestetik, gutako bakoitzak, eta are gehiago
Bermeoko Udalaren ekosistematik, GJH bat,
batzuk edo guztiak eta horietako bakoitzaren
helburu bat edo batzuk zelan **betetzen** ditugun
erakusteko eredu izatea gustatuko
litzaigukeelako.



JOLASTU ALDAKETAREKIN
ALDAKETAK ZUREKIN
JOLASTU AURRETIK

* PROYECTOS
CONJUNTOS

AMISTAD

PASION

CON

...

...

...

...

AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK:

Fitxa teknikoa

Fitxa teknikoa:

➤ **661 interakzio**

- 646 kalean
- 15 orri entregatuta

➤ **Prozesuaren gako metodologikoak:**

- 3 pertsona, 3 egun, 3 ordu egunero
- Bisitatutako lekuak: Lamera, Portua, Alde Zaharra, La Estrella Plaza, Erreten Parkea, Merkatu txikia, Azoka... eta udalerriko hainbat kale.

➤ **Metodologia:**


- Lehentasunak markatzeko fitxa
- Eta ekarpen libreak egiteko aukera
- 348 ekarpen (% 53,86k ekintzaren bat proposatu du)

AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK:

Emaizen txostena


Jarraian, 2022ko irailaren 24, 26 eta 27an udalerrian egindako 2022ko Bermeoko Udalaren Aurrekontu Parte-hartzailearen prozesuaren datu garrantzitsuenak biltzen dituen txostena aurkezten dugu.

661 interakzio







EREMU OROKORREN LEHENTASUNA



LEHENENGO LEHENTASUN MODUAN AUKERATUTAKO EREMUAK



Lehenengo 3 lehentasun moduan aukeratutako eremuak




BALORATUTAKO EREMUEN ARABERAKO PRINTZIPIOAK





348 ekarpen

Ideen ekarpenak



ideia parte-hartzaileak kalean

- Txakurrentzako leku gehiago
- Erreka garbitu eta zaindu
- Aldatza konpondu laban egiten duelako/
barandillak erdizka
- Gizalegea sustatu herrian
- Garbiketa gehiago
- Txakur kaken arazoa eta mugikortasun urriko
pertsonek irisgarritasuna konpondu
- Saltoki txikiak sustatu eta lagundu
- Kultura sustatu
- Gaueko argiztapena eta segurtasuna
- Gazte ekintzaileentzako erraztasunak
- Gazteentzat gauza gehiago, herritik joan egiten
dira
- Merkatuaren buelta osoa hutsik dago
- Irisgarritasun txarra lamera txikire
- Txin-txaunetara aterpea
- Erreteneko aldatzaren alternatiba
- Bermeotik urten behar dot berriro herrira joateko
- Alde zaharra politxo jarri
- Parte zaharra berriztu, turismo aldetik ondo
ikusteko / Gazteak herrian geratu ahal izatea
- Aparkalekuak

- Turismoaren industria indartzea
- Kaleak garbiago
- Kaleak labankor daude (Diodor-Anasagasti)
- Aldarrikapenak mantendu eta kartel guztiak berehala ez kendu.
- Erretiratuentzako laguntzak
- Inguruetako guneak gehiago garbitu
- Gizarte zerbitzuak indartu
- Ercilla antzokia, Tala pasealekua / Monumentu historikoak dituzten informazio plakak, etab. konpondu
- Eremu estali gehiago, adinekoentzat
- Gutxi egiten duten udaltzain larregi
- Industria bultzatu
- Komun publiko gehiago zabaltu
- Txakur kakak eta alkantarillak garbitu
- Irisgarritasun eta laguntza gehiago ezinduentzat
- Gazte herriko losak konpondu
- Kale zikinak, kale garbitzaile gehiago
- Kale guztiak lohi, multak txakurren jabeentzako
- Arratoiak dagoz
- Losa asko altura desberdinetan
- Udaltzainak kaletik gehiago ibiltzea
- San Martinen poto fekalak erre kara isurtzen dau, etxean usaina
- Garbitasun gehiago, irisgarritasuna alde zaharrean
- Negozioetarako segurtasuna
- Herriarentzako laguntzak, kirol instalazioak, erdiko kale guztiak konpondu, losak nibelatu

- Txakurren kakak botateko zakarrontziak, umeentzako aterpeak
- Kaleetako espaloietako altura kendu eta kaleak garbi mantendu
- Umeentzako aterpea
- Umeentzako jolasak leku babestuetan
- Umeentzako negurako lekuak eta jolasak
- Helduentzako kirola egiteko parkea
- Goiko kaleak konpondu eta argi gehiago
- Enplegu gehiago
- Lameran aterpean jolastokia
- Bizkaiko Jauregi kalean argitasun gehiago eta losak konpondu
- Gazteentzako aisia kulturala
- Irisgarritasun hobe alde zaharrear, aparkalekuak

- Jaietan kontenedore gehiago jarri, Altube aldea
- Obra larregi, igogailua sobran. Parkeak hobeto mantendu
- Udaltzaingoa oinez joatea
- Herria beti garbitu, ez bakarrik bezperatan
- Tunelaren azpian garbitasuna
- Kale eta galtzadarri guztiak konpondu
- Txibitxiaga kalea konpondu
- Adinekoentzako aisialdia
- Aparkalekuak
- Turismoaren industria indartu
- Komun publikoak garbitu, arduradun bat Lameran
- Aisialdi gehiago umeentzat

- Kirol-instalazioak konpondu egin behar dira
- Medikuek falta dira
- Dologiaga kaleko espaloiko garbiketa
- Tokiko merkataritzan inbertitu
- Umeentzako aisialdirako leku eta ekitaldi gehiago
- Zubiaur tar Kepa kalean irisgarritasuna aulki gurpildunentzat
- Aparkaleku gehiago Talan
- Dirua Bermeotarrentzat
- Garbitasun gehiago-txakurrak
- Almikeko auzoan garbitasun gehiago eta kontenedoreak
- Talie abandonatuta dago
- Alde zaharra suspertu

- Umeentzako aterpe gehiago
- Udal-merkatua sustatu
- Medikuek gehiago, hitzorduak hartzeko erraztasuna
- Alde Zaharra sustatu eta autoentzako sarbidea
- Goiko plazan jente nagusiarentzako eskulanak
- Talako bankuak konpondu eta barriztu
- Kaleak garbitu
- Umeentzako leku bat aterpeagaz
- Alde zaharrean argi gehiago
- San Martineko etxeei azalpenak eman
- Zornotzako programen antzekoak sortu
- Anbulatorioan gauzak arindu. Gazte eta umeentzako gauza gehiago

- Txikipark itxi bat, gune estaliak eta txakurrentzako parkea
- Bizkaiko Jauregi kalea konpondu, espaloietan argi gehiago
- Matxitxako bidea 10ean, garajera sartzeko zuloa konpondu
- Udaltzainak euren lana hobetu dezatela
- Espaloietarako sarbidea, gaizki aparkatutako autoak. Udaltzainek ez dezatela ordu berean zaindu.
- Kaleak garbitu, espaloiak konpondu, kultur jarduera gehiago
- Gauza gehiago umeentzat
- Piszina naturalak Frantzun Atzetan
- Enplegua sortu
- Kaleak konpondu
- Alde zaharra berriztu
- Triatloien autobusak aldatu eta komunikazioa

- Gizarteratze zerbitzuak
- Egia esaten eta egian oinarritzen den udal gobernua
- Gazteentzako aisialdi-guneak, Bermeon ez dagoelako edo oso gutxi daudelako
- Ertzilla zinema berriztatu behingoz
- Gabaz segurtasun gehiago eta iluminazio gehiago (San andres kalea)
- Gauean segurtasun gehiago
- Kontzertu gehiago
- Umeentzako jarduera gehiago (tailerrak), jabeek kakak jaso
- Umeentzako dibertsitatea
- Umeentzako leku gehiago
- Txakur-kakak jaso, komunen garbiketa, autobuserako espazioa hobetu
- Komuna garbitu

- Argi gitxi gabaz, umeentzako gauza gehiago, alde zaharra berriztu
- Batzokiko eta Ercilla zineko egoera begiratu, Frantzizko deuna 13 eta Batzokiaren arteko kable guztiak begiratu
- Bizkaiko Jauregia kaleko espaloia konpondu
- Txikipark, argi hobeagoak, garbitasun gehiago aterpeak
- Lan gehiago herrira
- Bekoportala zabaldu, Sollubeko tunela, Txakurren kakak
- Kultur espazioak
- Parke estaliak
- Aparkalekuak, kaleak hobetu
- Sollubeko tunelak
- Ekitaldi gehiago herrian
- Lamera konpondu
- Espaloiak eta portua konpondu
- Parke estaliak
- Turismoa ez ezik, industria be behar dugu
- Bertoko dendariei laguntzak
- Etxebizitza gehiago gazteentzat
- Etxebizitza turistikoak arautu
- Kirola egiteko leku gehiago umeentzako
- Gune berdeak
- Iluminazioa Talan
- Sollubeko tunela
- Aurrekoetxea kaleko losak konpondu
- Alde zaharrean igogailu edo eskailera
- mekanikoa jente nagusiarentzako

- Markesinak aterperik gabeko parاداتan
- Garbitasuna egunero leku guztietan
- Eskailera mekanikoak
- Aterpe guneak
- Garbiketa gehiago alde zaharrear eta segurtasuna
- Txakurren kakak batu eta umeentzako aterpeak
- Berdeguneak garbitu, txakurren kakak
- Olio botatzeko zakarrontzi gehiago eta
- Edukiontzia gehiago eta zaborra
- Umeentzako leku gehiago
- Garbitasuna
- Umeentzako jolasak leku babestuetan
- Kaleak garbi mantentzea urte osoan zehar, gune berdeak
- Herriarentzako aisialdi ekintzak asteburuetan
- Ekintzak egiteko espazioak
- Segurtasuna kaleetan, batez ere Talan, Almiken, Kurtzio eta kale ilunetan
- Portuko trafikoa mugatu
- Bizikletentzako eta gurgil-aulkientzako/umeen orgatxoentzako irisgarritasuna, alokatzeko bizikleta elektrikoa, oinezkoentzako kale gehiago
- Asteburuko garbiketa zerbitzua 8ak baino beranduago hasten da eta zarata handia egiten du
- Garraio publikoaren maiztasuna hobetu, kirol-portua, Sollubeko tunela, merkataritza-gunea eta alde zaharra bultzatu
- Estalitako txin-txaun gehiago

- Jarraipen gehiago txakur-gorozkien gaiari
- Asteburuetan umeentzako ekitaldiak antolatu, gauetan segurtasun gehiago kaleetan
- Lokal hutsentzako erabilera berriak aurkitu
- Alde zaharreko denden eta komertzioan erreaktibazioa
- Umeentzako gune itxia
- Alde zaharrean garbitasuna, umeentzako aterpeak
- Aurrekotxea kalean estolda konpondu
- Umeentzako gune estali gehiago, Erreten Lamerakoa eskas geratzen da
- Bermeoko gazteak txokoetatik irtetzeko planak egin
- Hobekuntzak herriko eremuetan, kaleetan, umeen parkeetan eta portuan, besteak beste animalientzako parke itxi gehiago
- Adin guztietarako jarduerak
- Adinekoentzako gizarte- eta aisialdi-jarduera gehiago
- Umeentzako aisialdi gehiago neguan
- Bide publikoa konpondu eta trafikoa kontrolatu
- Berdeguneak zaindu
- Sollubeko tunela
- Igerileku irekiak, aparkaleku gehiago
- Kotxeen sarrera debekatu portuan
- Agarre kalea argiztatu
- Independizatzeko laguntzak gazteentzat
- Isunak txakurren jabeentzat
- Argiak talan

- Alde zaharra zaindu
- Irisgarritasun hobeia alde zaharrear, aparkalekuak
- Sollubeko tunelak
- Industria gehiago
- Gazteentzako ekintzak
- Umeentzako parke estaliak
- Lana sustatzea
- Adinekoentzako jarduera gehiago
- Kirol ekintzak gazteentzako
- Gazteentzako ekintzak
- Aparkaleku gehiago
- Umeentzako parke gehiago

- Komun publiko gehiago
- Gune estaliak
- Kirola sustatzea
- Lan gehiago herrian
- Gune estaliak
- Ekintza kultural gehiago
- Sollubeko tunelak
- Herriko kale guztiak hobetu, aparkalekuak, portuko trafikoa itxi eta garbiketa
- Kirol-portua eta Sollubeko tunelak handitu, alde zaharra hobetu, portuko trafikoa itxi
- Umeentzako parke esetaliak
- Ereñe Zubi parkea egokitu, errepideak asfaltatu, Sollubeko tunela, parkeak eta aisialdia umeentzat
- Txakurren ordenantza bete

- Sollubeko tunela
- Portua konpondu
- Portuko errepideak eta Talako argiak konpondu
- Errepideak konpondu
- Argiztapena herrian
- Alde zaharra zaindu
- Alde zaharreko irisgarritasuna erraztu
- Txakurren inguruan garbiketa gehiago
- Alde zaharreko irisgarritasuna
- Portuzaharra oinekoentzat
- Portuzaharra oinekoentzat, komunak garbitu eta segurtasuna
- Komun publikoak garbitu

- Sollubeko tunela
- Gazteentzako ekintzak
- Lamerako adokinak konpondu
- Errepideak konpondu eta argi gehiago Talako igoeran
- Adin guztietarako lana sustatu
- Ur-hodiak konpondu
- Txakur solteak eta euren kakak ez jasotzea zigortu
- Espaloiak konpondu, txakurrek kakak kudeatu, portua konpondu eta umeentzako kirol guneak sortu
- Hezkuntza-parke gehiago
- Kirol-eskaintza/-aukera gehiago
- Parke estali gehiago
- Kiroldegiko ekintzak, txakurren kakak isuna, ekintza kultural gehiago

- Bainu publiko bat Izarran
- Industrian eta turismoan inbertitu
- Alde zaharreko kalea konpondu, etxebizitza turistikoak erregulatu
- Kaleak konpondu
- Kirola egiteko instalazio gehiago
- Garbitasun gehiago
- Komun publiko gehiago, umeentzako parke gehiago
- Hodi barriak herrian
- Sollubetik sartzean kartela aldatu
- Udaltzaingoak arreta hobeagoa izan behar dute
- Komun publiko gehiago
- Txakurrak garbiketa gehiago
- Santa Eugenia eliza aurrean garbitasuna eta bidea konpondu
- Umeentzako negurako lekuak eta jolasak
- Txikiparka zarratuta
- Trafiko gutxiago portuan
- Txakurrak garbiketa gehiago
- Industria indartu, gazteak badoaz
- Industria gune bat indartu
- Industria bultzatu
- Komun gehiago
- Komun publikoak, Artike kalean argitasun gehiago
- Txakurren kakak
- Komun publiko gehiago, Aritzazu bidean kontenedoreak jarri eta garbitasun gehiago

- Gazteentzako guneak
- Kultur proposamen gehiago
- Garbitasun gehiago eta kultur proposamen gehiago
- Kaleak garbitu
- Kaleak garbitu eta futol zelaia hobetu
- Txin-txaunen gunea itxi
- Segurtasun gehiago emakumeentzako
- Aisialdia eta kultura adinekoentzat
- Kirolak
- Gazteentzako kirol-jarduerak
- Gauza gehiago gazteentzat, aparkalekuak
- Txibitxiagan aparkaleku gehiago, Lamerako parkea garbitu

- Txakurrak kontrolatu
- Komun publikoak garbitu eta gehiago ipini
- Umeentzako parke gehiago
- Atletismo pista bat, jendea errepidetik kentzeko
- Sollubeko tunela, eremu estaliak, estali gabeko igerilekuak
- Nerabeentzako ez dago ekintzarik
- Euskara elkarte bat behar da
- Atletismo pista bat, aretoa konpondu, kaleak garbitu eta konpondu
- Aparkalekua
- Aparkalekuak
- Komun publiko gehiago eta jarduera gehiago
- Umeentzako toki berdeak

- Parkeko eta portuko lurzorua berritu
- Ordu-tegi zabala merkataritzan, turismoari begira
- Aparkalekuak
- Umeentzako parkea
- Aparkaleku gehiago kotxeentzako beheko kaleetan
- Tabernatan janari menu gehiago
- Umeentzako parkea
- Parkea konpondu
- Kaleak konpondu
- Jatetxe gehiago
- Aparkatzea ezinezkoa
- Aparkalekua eta agenteek zuzendutako irisgarritasuna

- Alde zaharra eta Sollubeko tunela konpondu
- Euskal kultura eta hizkuntza bultzatu
- Azpiegiturak
- Alde zaharra berritu
- Alde zaharra konpondu
- Bermeoko txosna batzordeari laguntza ekonomikoa eta partehartze gehiago
- Itsaso ondoan piztina eta leku gehiago kotxeentzat
- Adinekoentzako jarduerak eta txangoak
- Espaloiak konpondu
- Industria eta gazteentzako lanpostuak
- Hirugarren adinekoentzako jarduerak
- Bakarrik bizi den jendearentzako arreta

- Ez dago nahikoa aparkaleku
- Kultura zerbitzutik ekimen gehiago, alde zaharra konpondu, kirola sustatu, nagusientzako irteerak, etb.
- Herriko jaietan txosnei dirulaguntzak eman
- Alde zaharra garbitu
- Adinekoentzako arreta eta baliabide gehiago, berdintasunari arreta gehiago
- Alde zaharreko etxeak barriztu
- Alde zaharra suspertu
- Alde zaharra
- Garbiketa-autoa berritu
- Lamerako jolaslekuaren estaldura
- Txiritxagan eskailera edo arrapala
- Igerilekua portuan

- Bermeo eta Bilbo lotzeko sarbide-tunela
- Frantxun atzetan lonjak kendu eta igerilekua jarri
- Jaietan txosna gehiago
- Kotxeentzat parkina
- Alde zaharra berritu
- Herriko jaiak hobetu
- Udal langileentzako egoera hobeak
- Ekitaldi sozial gehiago
- Argitasuna eta segurtasuna jaietan
- Atletismo ekipoa
- Kaleak berriztatu
- Kaleak garbitu

- Udaleko funtzionarioen erdiak kendu.
- Ertzila zinea izandakoa aktibatu, kultur ekintzak antolatzeko
- Gabonetako azoka, triatloian egindakoa bezalakoa
- Auto elektrikoak kargatzeko lekua, adinekoen prestakuntza informatika gaietan, Gabonetako merkatuak triatloikoaren estiloan
- Kanpaien ordutegia, haize-makinak goizegi dabiltza
- Garbitasuna herrian
- Alde zaharraren potentziala
- Umeentzako jolastokietako ekintzak, Zubiau Tar Kepan Kaboan argia


Parte hartzeko ideien inkesta

- Ikasteko leku gehiago edo astean ordu gehiago ireki dauden lekuak, liburutegia adibidez asteburuetan ireki.
- Bermeon domeketan ez dugu non ikasi beste herri batzuetara joan beharra daukagu. Liburutegian dauden ordenagailuak berriztu, ezin baita eurekin lanik egin.
- Wifi egokiago bat jarri gehienetan deskonekatu egiten delako eta datu pertsonalak erabili behar dira
- Nire ustez liburutegiko orduak luzarazi beharko liratekez. Liburutegira etortzen den jendearen kontzentrazioa murrizten dituzten ekintzak ekiditu: esate baterako Lameran jarri ziren umeentzako “barrakak” eta bestelakoak ez jarri, musika ekitzak, eta abar.
- Gainera liburutegiko ordenagailuak eta wifia berriztu beharko liratekez eta gaur egun eskuragarri dauden teknologia berrietara egokitu. Azkenik ikasle bakoitzak piztu leiken argi-bana ere ondo legoke.
- Gazteentzako udalekuak (udan).
- Umeentzako aste buruetako ekintza. Umeentzako udal udalekuak.
- Kirol arloan berriro ekin hilabetean behin kirol baten programazioa: zunba, aerobik,...

- Liburutegien haur/gazteen artean irakurketa suspertzeko proiektua gometzen bidez adibidez, errefortzu positiboa soilik erabilizea. Instituzio zaharrek kantxak neguan ostiral, larunbat eta igandetan zabalduz.
- Biztanleak euren ingurunearekin konektatzea, gizabanakoen isolamendua saihestuz eta, ahal den neurrian, bilatu gabeko bakardadea eragozten duten jarduerak sustatuz, herritarren osasun mentala eta fisikoa hondatzen duelako. Zaurgarritasuna zaindu.
- Ekonomia aktibatu, biztanleriaren zahartzeak sortutako beharrei erantzunez. Agenda 2030, silver ekonomia (Euskadiko itun berdea kanpaina), Europako funtsak...
- Garbitasun zerbitzuetan inbertitu (batez ere umeak egoten diren tokietan, kolunpio eta parkeak negargarri daude)
- Mantenimendu lanak egin (kolunpioak apurtuta edo kenduta egon dira hilabeteetan)
- Umeentzako ekintzak antolatu eta guneak egokitu beraien benetako beharizanak kontutan izanik (gune berdeak ireki beraientzako, naturan integratuak, kolunpioetan lurra aldatu ez da egokia bero asko ematen du eta zikin daude, erreferentzia bisualak jarri nondik pasatu jakiteko...)
- Tilin-talanak dauden lekuan kolore ezberdineko lauki batekin markatu norarte heltzen den ume txikiek jakin dezaten
- Kaleak asfaltatu
- Espaloiak berritu
- Kaleak garbitu

- Herriko jendeari lan egiten laguntzea, sasoi baxuan dagoen herriari lehentasuna ematea
- Kaleak konpontzea, batez ere Alde Zaharra: kale-garbiketa, alde zaharrari bizia ematea, batez ere hondoratuta dauden negozio txikiei
- Zaintza: udaltzainak oinez gehiago eta auto gutxiago, eta gutxiago jan eta adeitsuagoak izan (mesedez)
- Suspertze ekonomikoa, herria itzaliz doa-eta
- Segurtasuna, oinezko udaltzain gehiago zaintzeko
- Garbiketa, herria zakur kakaz eta zaborrez beteta dago
- Irisgarritasuna eta mugikortasuna mota guztietako pertsonentzat
- Esparru soziala, ona da jendea gizarteratzea
- Kultura eta kirola, garrantzitsua herriko jendearentzat
- Euskara sustatzea, hori delako gure hizkuntza
- Bizkai bururako igogailua jartzea urte amaierarako
- Nire proposamena da osotasunez lan egitea kontutan edukita arlo guztiak. Baina gehien landu behar dena alde zaharraren etorkizuna. Zaindu gure herria denona da.
- Akorda dirua herrian gastatzeko da

- Atalde eta bizkai buru arteko igogailua ahalik eta arinen
- Gurpil-aukietan doazenentzat hobeto prestatutako kaleak
- Hainbeste lorategi daudenez, hobeto zaindu, parkean ondo zaintzen eta ureztatzen dituzte, baina goiko aldean loreontzi loredunak izorratuta daude, botatzen dituzten zaborrengatik, jendeak loreak eramaten ere egiten ditu. Baina beste batzuetan, baloi kolpeekin, denak izorratzen dituzte, batez ere Santa Maria elizaren atzean daudenak. Debekatu hor baloiarekin jolastea eta, bestela, isuna jarri, baina guztientzat.
- Anbulatorioan eserlekuren bat jarri zain zauden bitartean eserita itxaron ahal izateko. Jendea ezin delako zutik egon.
- Estoldek zulo moduko bat dute, hor makila edo dena delakoa sartuz gero, bazoaz ipurditik hartzera eta sentitzen dut berba horiek erabiltzearen.
- Kale guztiek, gorabehera handiagoak edo txikiagoak dituzte, adreiluak edo harriak ondo ez jartzeagatik. Eta bazoaz lurrera. Kale batzuk oso labainkorrak dira, batez ere, harrien ordezt, harrien formak emateko moldeak erabiltzen denetan. Eta kaleak urez garbitzen dituztenean, batzuk ez dituzte garbitzen, edo denak edo bat ere ez. Beti dira berberak, eta batez ere udaletxe ingurukoak, antzokikoak... aurpegi handia.



gaiak eremuka

➤ GARBIKETA

- Garbiketa orokor gehiago
- Ibaia eta ingurunea garbitzea
- Txakur-gorotzak garbitzea

gaiak eremuka

➤ AISIALDIA, KULTURA ETA KIROLA

- Estalitako eremu gehiago
- Kultura sustatzea
- Kirol-instalazioak hobetzea
- Txikienentzako instalazio estaliak
- Adinekoentzako aisialdia
- Igerileku naturala
- Gazteentzako eskaintza gehiago

gaiak eremuka

➤ IRISGARRITASUNA ETA MUGIKORTASUNA

- Aparkalekuak
- Kaleak labainkor daude
- Argiztapena hobetzea
- Portuko trafikoa

gaiak eremuka

➤ SEGURTASUNA

➤ Oinez doazen udaltzainen presentzia handiagoa

➤ Negozioetarako segurtasuna

gaiak eremuka

➤ SUSPERTZE EKONOMIKOA

- Industria indartzea (ez bakarrik turismoa)
- Alde Zaharra suspertzea

gaiak eremuka

➤ GIZARTE-EREMUA

- Erretiratuentzako laguntzak
- Gizarte zerbitzu gehiago

Ondorioak

AURREKONTUETARAKO PARTE-HARTZE PROZESUAREN emaitzek aukera ematen digute:

- Bermeoko herritarrei planteatutako eta kontsultatutako aurrekontu-partidak **lehenesteko eta antolatzeko**
- Udal-planak abiarazteko kontrastatu eta balioztatu beharreko ekintza **zehatzen** lehen **hurbilketa** izateko (zer espaloi konpontzen hasi, zer eremutan indartu garbiketa, eta abar).
- Udalari eta erabakiak hartzeko prozesuei dagokienez **herriarrek duten “gogo-aldartea”** kalibratzeko.
- Bermeotarren oso **konpromiso eta pertinentzia-sentimendu** maila altua egiaztatzeko.
- Gobernu-proiektua erraztu eta ahalbidetuko duen **partaidetza-kultura handiagoa sustatzeko konpromisoa** hartzeko, bai eta Bermeo bermeotarrek gura dutena bihurtzeko ezarritako helburuak ere.

AURREKONTUETARAKO PARTE-HARTZE PROZESUAREN gakoek **partaidetzaren kultura** sustatzean jarri dute arreta:

- **Jendea dagoen lekura joan** gara, ez dugu lekurik jarri eurak hurbil daitezzen.
- Hainbat lekutan, ordutegitan, testuingurutan... egon gara ekarpenen bilketan **parte-hartzearen aniztasuna** bermatuz.
- Gure erronka herritarrentzako **jarduera-eremu garrantzitsuenak identifikatzea** da, eta ildo horretan martxan jartzea eta hobetzen jarraitzea ahalbidetuko diguten ideiak biltzea.



AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK: PLANGINTZA ETA METODOLOGIA

Plangintza-proposamena

AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK egiteko partaidetza-prozesua dinamizatzea planteatzen dugu, ez ekintzen batura gisa, baizik eta pertsona guztientzako **aukerak eta balioa** sortuko dituen **prozesu koherente** gisa.

Kontua, **erronkak** elkarrekin identifikatzea ahalbidetuko duen, pertsonak eta eragileek konpromisoa hartu ahal izateko **elkarlanerako** aukera emango duen, eta **benetako inpaktuak** sortuko dituen eta udalaren ikuspegiarekin lerrokatuta eta **aurrekontu parte-hartzaileen bidez eraldaketa soziala** lortzera bideratuta egongo den kontakizuna eraikitzen joatea da.



AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK: PLANGINTZA ETA METODOLOGIA

Lan eta harreman eredua

AURREKONTU PARTE-HARTZAILEEN prozesuak, gainera, kaleko ekintzen egitura eta plangintza eskatzen ditu, bai eta zutabe argiak dituen lan-eredua ere, harremanetan izateko orduan **pertsonak erdian izango dituen** modu berria ahalbidetzeko.

Planteatzen dugun lan-eredua bat etorriko da **OGP**k ezartzen duenarekin, guztion artean sorkuntzan oinarritutako prozesuak bermatzeko eta etengabeko hobekuntzarako ikaskuntza sortzeko.

Garai hauetan, gobernantza eta berrikuntza publiko berri horrek eragina izan behar du pertsonengan eta eragileengan, paradigma aldatzea ahalbidetzeko, aliantzaren lana **pertsonengandik, pertsonekin eta pertsonentzat orientatzeko.**

Eta hori guztia aktibatuz eta **mugimendua sortuz**. Ez dugu Bermeon parte hartzea bultzatuko, ez bagara abian jartzea eskatzen duten ekintza argi eta garbi markatzen duten estrategiak sortzeko gai. Eta zer modurik onena modu **parte-hartzailean, kolaboratiboan eta gardenean** egitea baino.



THINK
OUTSIDE
THE BOX

Lanerako prozesua

BATERA SORTZEA

Lan-saio orok, ekintza eta estrategiei forma, esanahia eta koherentzia ematen dieten balio-proposamen guztiak barne hartzen dituen baterako sorkuntza-prozesua eskatzen du.

IKASKUNTZA

Prozesu orok etorkizuneko erronkak, estrategiak, helburuak eta itxaropenak definitu, zehaztu eta testuinguruan kokatzeko aukera ematen duen ikaskuntza sortzen du. Hori guztia baterako sorkuntza eta prozesu berriak berriro aktibatzeko.

Open
Government
Partnership



INPLEMENTATU

Partaidetza-prozesu batetik abiatutako lan-saio orok askotariko ikuspegi eta begiradetatik ezartzeko aukera ematen du, eragileak eta pertsonak lerrokatuz eta harreman-ereduak erantzukizunetik finkatuz.

EBALUATU

Ezinbestekoa da azterketa eta ebaluazioa egitea, prozesuak eraikitze eta sistematizatzeko agertokia erakusten duten kanpoko zein barneko faktoreetatik, horiek kontrastatzeko eta kontuak aurkezteko.

Paradigma aldaketa



“FUNTZIONALITATETIK” **GOBERNANTZARA**

Harremanetarako ereduak

PARTE-HARTZEA


Pertsonak eta eragileak Bermeoko aurrekontuekin zerikusia duten ekintzen eta ekimenen eraketan modu aktiboan parte har dezaten bultzatzea eta sustatzea, erakundeei haien diseinuan eta ezarpenean lagunduz.

GARDENTASUNA

Administrazioak Bermeoko gizartearen aurrean kontuak aurkeztu ditzan sustatzea eta bultzatzea, eta egiten ari denari buruzko informazioa ematea, bai eta aurrekontuetatik kontrolatzeko eta balioa sortzeko dituen jarduketa-planei buruzkoa ere.

LANKIDETZA

Pertsonak eta eragileak administrazioaren lanean inplikatzeko eta konprometitzeko, eta, horretarako, sistema publikoa lankidetzan publiko-pribatuan prestatzea, Aurrekontuen Legearen zutabe gisa.



NONDIK

AKTIBATU
PROIEKTATU – IKUSARAZI
PROSPEKTATU

NOREKIN

ELKARREKIN SORTU
KONEKTATU
GAITU

ZERTARAKO

KONTUAK EMAN
ERRAZTU
PROTOTIPATU

GIZARTE EKONOMIA: PLANGINTZA ETA METODOLOGIA

MPL® metodologia

Dagoeneko 10 urte baino gehiago eman ditugu Coach and Play-n MPL POSITIVIDAD LANZADA izeneko metodo zientifikoa ikertzen, sortzen, balioztatzen eta sistematizatzen. Metodo horrek erronkei aurre egiteko edo erakundeetan arazoak konpontzeko metodologiak sortzeko aukera ematen du, emaitza argi batekin: **aldaketa jolastuz eraldatzea.**

Eta zergatik jolastuz? Jolasak pentsamendu sortzailea errazten duelako; ideiak, pertzepzioak eta agertokiak modu orekatuan eta partekatuan lantzeko aukera ematen digulako; gure adimen intuitiboarekin konektatzen dugulako eta horrek benetako ikaskuntza bihurtzen diren interpretazioak egitera bultzatzen gaituelako; eta jolastea beti segurua delako.



Eta gure KIE-CIP (Konektatu, Inpaktatu, Eragin) prozesuaren bidez **estrategia** argiak **egituratu ditzakegu**, pertsonak, taldeek eta erakundeek **sistemaren dimentsiotik** lan egin dezaten; izan ere, posible al da Arabakoa bezalako gizarte batek dituen dimentsioetako bat, horien guztien artean sortzen den erlazioa eta inpaktua kontuan hartu barik isolatzea?

MPL® POSITIVIDAD LANZADA metodoari esker, jolasak sor daitezke, emaitza eraginkorra bideratzeko eta bermatzeko aukera ematen duten funtsezko elementuak bermatuz. Hori dela eta, 25 metodologia balioztatu baino gehiago ditugu, eta erakunde publikoek eta EUROPAR BATASUNAK, EUSKO JAURLARITZAK, ALDUNDIEK eta UDALEK baliatu dituzte..., bai eta enpresa pribatuek ere: INDITEX, REPSOL, MERCEDES, NESPRESSO...

Urte askotan jolastu gara imajinatzen, tresnen eta materialen balioarekin konektatzen, dimentsio-aniztasuna eta bere formen bidez irudikatzeko aukera aplikatzen, eta esan dezakegu **helburuak** modu argian eta eraginkorrean **lortzeko** balio duen prozesu metodologikoa sortu dugula.

Horregatik, gure proposamen metodologikoa alderdi hauek partekatzen dituzten hainbat metodologiatan oinarrituko da:



Zutabeak

ESPERIENTZIA-IKASKUNTZA

Bizipena eta esperientziak sortzera bideratutako hausnarketarako eta erabakiak hartzeko uneak ahalbidetuko dituzten espazioak sortzea.



COACHING

Aldaketara hurbilketa positiboak egitea ahalbidetuko duten hausnarketa eta ikuspegi bereizgarriak erraztea.

JOLASA

Emozioetatik abiatuta eraikitzea eta ikaskuntza naturala errazten duten esperientziak sortzera bideratutako estrategiak integratzea.

Prozesua

MPL® sistemek, emaitzak lortzeko jolasarekin berriro konektatzeko aukera ematen dute.

Izan ere, frogatuta dago **jolasteak eraldatu** egiten duela harremanetan jartzeko eta taldean aritzeko dugun modua; jolastuz gure baliabideak eta pertzepzioak modu desberdinean artikulatzen ditugulako; jolasak egoera konplexuetara beste begirada batekin hurbiltzeko aukera ematen duelako, ideia eta soluzio berriak sortzeko aukera ematen dizulako; eta jolastea, berdina da nor dagoen, segurua eta orekatua delako.

Prozesuak **konektatzeko, inpaktatzeko eta eragiteko** aukera ematen duten sistemen 3 maila eta dimentsio aurreikusten ditu (LHIK PROZESUA).




KONEKTATU

INPAKTATU

ERAGIN



Elementuak



Ereduak

EREDUEK ikuspegi estrategikoan oinarrituta lan egiteko aukera ematen dute, egoeraren azterketatik hasi eta ideia eta estrategia berriak sortuz, ikuspegi lerrokatua garatzeraino.

Ezinbestekoa da eredu bakoitzaren potentziala identifikatzea, horrek **ikaskuntza-prozesuak** ahalbidetuko dituelako, bai eta **kide izatearen sentimendua eta ikuspegiarekiko konpromisoa** indartu ere.



HAUTEMANDAKO EREDUA

Errealitatea pertzepzio indibidualetik adierazten duten ereduak

IKUSITAKO MODELOA

Ikuspegi emozional eta abstraktuenak irudikatzen dituzten eredu metaforikoak

IDEIAKO EREDUA

Potentziala eta etorkizuna irudikatzen dituzten eredu “ezinezkoak”.

Pausoak

Pertsonen balioa

Nabarmendu behar da pertsonek egiten dituztela estrategiak eta konponbideak, eta guztiek dutela zerbait paregabea emateko.

JOLASTU

Erabakiak eraginkortasunez hartzea

Ez du ezertarako balio estrategiak edo erantzunak sortzeak, dinamikoak ez badira eta martxan jartzen ez badira

JARDUN

Begiraden aniztasuna

Ez daude bi begirada berdin, eta beharrezkoa da aniztasun hori aukera gisa, eta ez mehatxu gisa, ulertzea.

BEHATU

Helburu komunak dituzten helburu pertsonalak

Kontua ez da puntu komunak bilatzea, baizik eta guztiak konprometituta dauden ikaskuntza-testuinguruak sortzea.

IKASI



DATU PERTSONALAK / DATOS PERSONALES

BIZILEKUA (kalea/auzoa) / Domicilio (calle/barrio): _____

ADINA / Edad: _____ SEXUA / Sexo: _____

1. LAN-LERROAK ETA LEHENTASUNAK / ÁMBITOS DE ACTUACIÓN Y PRIORIDADES

1etik 7rako zenbakiakaz, ordenatu egizuz zazpi lan-lerro honeek zure ustezko lehentasunen arabera. Jarri eiozu 1 zuretzako lehentasun handiena daukanari eta 7 gitxien daukanari.

Ordena según tu escala de prioridad los siguientes 7 ámbitos de actuación, siendo la 1 la de mayor prioridad y la 7 la menos prioritaria.

1-7	LAN-LERROA / ÁMBITO DE ACTUACIÓN
	Aisialdia – Kultura – Kirola / Ocio – Cultura - Deporte
	Arlo soziala / Ámbito Social
	Berraktibazino ekonomikoa / Reactivación económica
	Garbitasuna/ Limpieza
	Irisgarritasuna eta mugikortasuna / Accesibilidad y movilidad
	Segurtasuna / Seguridad
	Beste batzuk (idatzi proposamena) / Otro(s) (escribe tu propuesta)

2. ZURE PROPOSAMENAK / TUS PROPUESTAS

Idatzi egizuz hemen Bermeo eta bermeotarrontzako onuragarriak izan daitekezala uste dozuzan proposamenak eta proiektuak. Escribe aquí las propuestas y/o proyectos que creas que pueden ser beneficiosos para Bermeo y los/las bermeotarras.

Udal instalazioei
buruzko inkestak



ARRAIN-IDEIAK

TOPAKETA PARTE-HARTZAILEETARAKO
MPL METODOLOGIA

Parte hartu!



1-7	LAN-LERROA / ÁMBITO DE ACTUACIÓN
	Aisialdia – Kultura – Kirola / Ocio – Cultura - Deporte
	Arlo soziala / Ámbito Social
	Berraktibazino ekonomikoa / Reactivación económica
	Garbitasuna/ Limpieza
	Irisgarritasuna eta mugikortasuna / Accesibilidad y movilidad
	Segurtasuna / Seguridad
	Beste batzuk (idatzi proposamena) / Otro(s) (escribe tu propuesta)

BERMEOKO UDALA
2023ko AURREKONTUA

Idatzi egizuz hemen Bermeo eta bermeotarrontzako onuragarriak izan daitezkeza uste dozuzan proposamenak eta proiektuak. Escribe aquí las propuestas y/o proyectos que creas que pueden ser beneficiosos para Bermeo y los/las bermeotarras.

BERMEOKO UDALA
2023ko AURREKONTUA

YOU
ARE
HERE



AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK: TESTUINGURUA

Sarrera

Garai konplexuak dira udal-kudeatzaileentzat, eta joera berriek Administrazio Publikoa modernizatzea dute helburu. Gainera, kudeaketa publikoan, gardentasunean, kontuak aurkeztean eta herritarren parte-hartzean eraginkortasun-eta koherentzia-irizpide zorrotzak erabiliz “ebaluatzen eta balioesten” dira (askotan, gizarte zibilaren erantzunkidetasun barik).

Horregatik, pozgarria izan zen ikustea kasu honetan Bermeoko Udalak paradigma aldatzetik bideratutako prozesuaren aldeko apustua egin duela, kasu honetan **AURREKONTU PARTE-HARTZAILEEI** erantzuten dien, eta kudeatzaile publikoengan eta Bermeoko bizitza politikoan bertan duen konfiantza suspertu gura duen gobernantza publikoaren eredu berria, horizontala eta kolaboratiboa aplikatuz.

Gure ustez, paradigma aldaketa horren azken helburua Udal Aurrekontuen lehenespenari eta ikuspegiari askotariko balio-ikuspegiak gehitzea da, aurrekontu horien ekintza-plana bultzatzeko eta ezartzeko.

Azken batean, prozesu berritzailean Udalaren ondoan egon gara, guztion artean, arlo publikoaren kudeaketa herritarren



Azken batean, prozesu berritzailean Udalaren ondoan egon gara, guztion artean, arlo publikoaren kudeaketa herritarren lehentasunekin lerrokatzen lagunduz erabakiak hartzerakoan lankidetzaz eraginkorra eta herritarren eta elkartearen parte-hartze handiagoa bermatuko duen eredua sortzeko. Hau da, lehentasunak ezartzen eta AURREKONTUAK hobeto gauzatzen lagunduko duen eredu eraldatzailea.

Diseinurako diagnostiko-gakoak

Herritarrek partaidetza-prozesua diseinatzerakoan kontuan hartu behar genituen zenbait pertzepzio eta balorazio jende aurrean adierazi zituzten errealitate soziopolitikotik abiatu ginen:

- Arlo publikoaren kudeaketa konplexua eta malgutasun gutxikoa dela uste dute.
- Ikuspegi partekatu gutxi eta bizitza politiko eta instituzionalaren eta herritarren lehentasunen arteko lerrokatze falta
- Ez dago eraldaketarako behar den elkarrekintzarik
- Prospekzio-tresna eta -sistema gutxi erabaki politikoak hartzerakoan
- Eragileen eta interesen ekosistema-aniztasuna elkarte antolatuen eta auzokoen artean
- Herritarren inplikazioaren ikuspegitik huts egin duten aurreko esperientziak. Parte-hartze txikia eta eragin txikia.
- Gobernu taldeak konpromiso sendoa hartu du udal kudeaketari buruzko kontuak emateko sistema ezartzeko
- ...



AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK: TESTUINGURUA

Azterketa estrategikoa

Garai konplexuak dira udal-kudeatzaileentzat, eta joera berriek Administrazio Publikoa modernizatzea dute helburu. Gainera, kudeaketa publikoan, gardentasunean, kontuak aurkeztean eta herritarren parte-hartzean eraginkortasun- eta koherentzia-irizpide zorrotzak erabiliz **“ebaluatzen eta balioesten”** dira (askotan, gizarte zibilaren erantzunkidetasun barik).

Horregatik, pozgarria da ikustea kasu honetan Bermeoko Udalak sustapen-ereduaren aldeko apustua egiten duela, eta eredu horrek **paradigma-aldaketa bat sustatzeko** balio behar duela uste dugu:

Gobernantza Publikoko eredu berria aplikatuz, horizontala eta kolaboratiboa, lurralde historikoaren beharrei eta garapenari erantzungo diena, eta kudeatzaile publikoengan eta bizitza politikoan bertan duen **konfiantza berreskuratzea** ahalbidetuko duena, AURREKONTU PARTE-HARTZAILEEN bidez.


Gure ustez, paradigma aldatzeko estrategia berri honen azken helburuak, **politika publikoen diseinuari eta gauzatzeari hainbat ikuspegi gehitzea** eta eredu erlazional berri bat sortzea ahalbidetzea izan behar dute, inplementazioari mesede egiteko eta balioa emateko.


Azken batean, Bermeoko Udalaren eta pertsonen artean, politika publikoen diseinuan eta garapenean eta erabakiak hartzean herritarren lankidetzaz eta partaidetzaz eraginkorra bermatuko duen eta , **gizarte-eraldaketarako** emaitzarik onenak lortuko dituen eredu bultzatzen laguntzea.

Eta zein esparru hobe udal-aurrekontuak baino.

Horregatik, gure ustez, partaidetza-prozesurako **ZER** egitetik harago, prozesu hori **ZELAN** gauzatu da eraldatzailea.

Plangintzan eta proposamen metodologikoan aurkezten dugun proposamenaren zutabeak **governantza eta berrikuntza publikoa** izango dira, gure ustez inplementazioan balio handiagoa ematen dutelako.





Gobernantza

Gobernantza terminoak, oro har, **erabakiak hartzeko eta horiek inplementatzeko edo ez**, ezartzen diren prozesuei egiten die erreferentzia. Horrela, gobernantzaz berba egin dezakegu enpresetan, erakundeetan, udalerrietan, eskoletan, unibertsitateetan

Gobernantza Onaz berba egiten da erabakiak hartzeko eta inplementatzeko prozesuak eraginkorrak direnean, hau da, horren eragina jasotzen duten eragileen artean modu demokratikoan egiten direnean, lortu gura duten helburuaren arabera baliabide orekatuak kontsumitzen dituztenean, behar duten informazioarekin hartzen direnean.

Herrialde bateko gobernantzaz hitz egiten denean, gobernuak esku hartzen duen eragileetako bat dira, baina ez bakarra. **Gobernantzaren eragileak** dira, halaber, herritar antolatutako eta antolatu gabeak, eragile ekonomiko eta sozialak, presio politikoko taldeak...

Gobernu Ona da erabakiak hartzeko prozesuetan eta erabakiak inplementatzean “gauza onak eta egokiak” erabiltzen dituen, hau da, balio publikoa sortzeko balio duena, printzipio hauekin:

01



Zuzentasunak
erakunde
publikoen
azpiegitura etikoa
hobetzen du

02



**Herritarren parte-
hartzeak** ordezkaritza-
demokrazia aberasten
du eta ezinbestekoa
da kudeaketa
publikoan

03



Gardentasunak
informazio publiko
zehatza eta eskuragarria
eskura jartzea dakar.

04




**Legezketasun-
printzipioak,**
arauetara egokitzea
dakar

05




Etika kargu publikoaren
jokabidean eta langile
publikoen lanean,
zerbitzu publikora
bideratuta

06



Adostasunak
gizartearen interesen
arteko bitartekaritza
eskatzen du, giza
garapen jasagarria
lortzeko.

07



Ekitateak,
komunitatearen parte
direla sentitzea eta
ongizate-egoera
hobetzeko aukerak
izatea dakar.

08



Kudeaketaren
**eraginkortasunak eta
efizientziak,** baliabideak
ahalik eta ondoen
erabiliz emaitzetara
eramaten dute

Zortzi printzipio horiek dira **balio publikoa sortzea** helburu duen Gobernu On baten zutabeak. Balio publikoa sortzen da desiragarritasun politikoa legitimitate demokratikoko prozesu batean oinarrituta ezarri den beharrizan edo eskaera sozialei benetan erantzunez; eta gizarte osoaren edo sortutako balio publikoaren hartzaile legitimotzat aitortutako talde sozial batzuen izaera aldatzen duten **aldaketa sozialak sustatuz**, betiere ondasun publikoen izaera ezaugarritzen duen jabetze kolektiboko dimentsioa badago.

Baina Gobernu On batek **Administrazio On** bat behar du, lortu gura dituen gauza onak ondo egiteko.

Gauzak hobeto egiteko aukera ematen duten tresnek herritarrekiko harreman-ereduarekin dute zerikusia, eta, adibidez, hauek txertatzearekin:



Politika eta zerbitzu publikoak etengabe **planifikatzeko eta ebaluatzeko mekanismoak**



Proposamenak eta iradokizunak egitea, kontrastea eta entzute aktiboa ahalbidetzen duten herritarrekiko **informaziorako eta elkarrekintzarako aurrez aurreko plataforma birtualak**



Lana antolatzeko eta langileak eta erabiltzaileak inplikatzeko **eredu malguak**



Etengabeko hobekuntzan laguntzen duten eta erabiltzaileekin edo onuradunekin konprometitutako zerbitzu-gutunak ezartzen dituzten **kudeaketa aurreratuko sistemak**




Arauen eta prozedura administratiboen kalitatea **sinplifikatzeko**, arrazionalizatzeko eta hobetzeko **berrikuspentresnak**



Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak, prozesuak automatizatzeko eta informazio publikoa biltzeko eta behar bezala erabiltzeko.



Gainera, azken boladan, Barack Obama AEBetako presidente ohiak 2009ko urtarrilaren 21ean aldarrikatu zuen Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Memorandumetik abiatuta, beste kontzeptu bat zabaldu da, funtsean Gobernu On baten hiru **zutabeei**, estrategia parte-hartzailearen zutabeei, erreferentzia egiten dien Gobernu Irekiarena:





Berrikuntza publikoa

Berrikuntza publikotzat ulertzen dugu kudeaketa publikoaren eremuan ideia eta jardunbide berritzaileak aplikatzea, **balio soziala sortzeko** helburuarekin.

Berrikuntza publikoaren helburua, beraz, gizarte-premiak eta kalitatezko zerbitzu publikoak behar bezala aseko dituzten politika publikoak lortzea da, baliabide publikoak modu eraginkorrean esleituz eta erabiliz. Administrazio publiko **moderno, arin eta eraginkorra** erabakigarria da ongizate-kuota eta bizi-kalitate handiagoko gizartea lortzeko.

Gure inguruneak eta lurraldeak berrikuntza bere ekonomiaren lehiakortasuna hobetzeko funtsezko elementutzat hartzen duen bezala, sektore publikoak **lidergo-rol eredugarria hartu behar du berrikuntzari dagokionez**, zerbitzu publikoak hobetuz, herritarrei eta enpresei orientazioa emanez, eta eraginkortasun operatiboaren bidez, besteak beste.

Horregatik, Aurrekontu Parte-hartzaileen prozesuak bere egin behar du Administrazio ireki, garden eta eraginkorraren **konpromisoa**, eta printzipio orientatzaile hauek adierazi behar ditu:

01



Sentsibiltateak eta pertsonen oinarrizko beharrekiko konpromisoak erakunde publikoen ekintzaren funtsezko printzipio izaten jarraitu behar dute. **Funtsezko zerbitzu publikoak eta gizarte-politikak bermatzea da** Bermeon kohesioa eta bizi-kalitatea finkatzeko ardatza

02



Gardentasunean, eraginkortasunean, parte-hartzean eta emaitzen ebaluazioan oinarritutako administrazio-kultura berriaren oinarriak garatu gura ditugu. Plangintza eta herritarren parte-hartzea izan behar dira Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunean aldarrikatutako gobernu ona eta administrazio ona izateko eskubidearen ardatz bermatzaileak

03



Gardentasuna eta herritarren parte-hartzea lehentasunezko eta zeharkako alderdi bihurtu dira. **Sareak sortzeko eta herritarren eskaerei entzuteko**, erantzuteko eta partekatzeko gai izango den administrazio publikoaren eredua defendatzen dugu. Herritarren parte-hartzea demokraziaren ideiaren muinean dago: elkarrizketa herritarrekin arazoei heltzeko, entzuteko eta konponbideak partekatzeko. Hori izango da gure bidea

work
&
play

BALIO ANTOLAKETA

COACH AND PLAY

POSITIBOTASUN ABIATUA

COACH AND PLAY PROIEKTU
BERRITZAILEA DA ERAKUNDE
PUBLIKOAREN ETA PRIBATUAREN
ARLOAN.

PERTSONENGAN ETA ERAKUNDEETAN
BALIOA SORTZERA ZUZENDUTAKO
METODO PROPIOA DUGU –MPL
POSITIBOTASUN ABIATUA–.

SINESMEN HONETAN OINARRITUTAKO
PROIEKTUAK, PROZESUAK ETA
ESTRATEGIAK GARATZEN DITUGU:

“PERTSONEN GAITASUN MUGAGABEA,
ALDAKETA ETA ERALDAKETA
SOZIALAREN ERAGILE GISA”



COACH AND PLAY,

JOLASAREN BIDEZ

ERALDAKETA SOZIOPOLITIKOAN

ESPEZIALIZATUTAKO ENPRESA PROIEKTUA DA,
GOBERNANTZARAKO ETA GOBERNU ONERAKO

GAITZEKO ETA PROIEKTU

ESTRATEGIKOAK KUDEATZEKO

ZERBITZUAK ESKAINIZ



BALIO ANTOLAKETA

Governance and Play

GOVERNANCE AND PLAY, politika hobe baten alde lan egiteko kezkak bultzatuta hainbat esperientzia, begirada eta sentsibiltate dituen pertsona-talde batek osatutako proiektua da.

Aldaketa horretan laguntzen diegu erakundeei, erakunde publikoei eta gainerako eragile politikoei, gauzak beste modu batean egiteko metodologia propioan oinarritutako jolasaren bidez, pertsonak erdian jarritz.

“Gauzak gertatzea eragitea”.

Helburua eraldaketa-prozesuei behar bezala aurrea hartzea da, etorkizuneko joerei erantzuteko, eta, betiere, erronken emaitzetara argi bideratuta.

Prestakuntzari dagokionez diziplina anitzeko taldea gara, eta pentsatzeko moduei dagokienez, plurala. Guztiok dugu esperientzia mundu pribatuan eta publikoan eta 6 urte baino gehiago daramatzagu metodo honekin lanean. 200 esperientzia arrakastatsu baino gehiagoren bermea dugu.



Balioa beste modu batean sortzeko agertokiak eratzen dituen gure metodologiaren bidez, prozesuetan parte hartzen duten pertsonen aniztasunaren balioa bermatzea lortzen dugu. Horrek konfiantza, segurtasuna eta aldaketak sendotzen laguntzen du.

Proiektua bermatzeko eta bideragarri egiteko, GOVERNANCE AND PLAYn ARTEFAKTU hau daukagu:

“Kanpoko kolaboratzaile talde batek osatutako zaintza, prospekzio eta kontraste unitatea. Talde horrek esparru akademiko, enpresarial, soziokultural, teknologiko... ikuspegietatik abiatuta, proposamenak probatzeko, prototizatze eta sistematizatze agertokiak eta estrategiak marrazteko aukera ematen digu”.

Badakigu herritarrek ez dutela ordezkaritza-erakundeekiko eta politikarekiko atxikimendurik. Maila sozio-ekonomikoan eta politikoan gertatu diren aldaketak lehen pertsonan aztertu eta bizi izan ditugu.

Errealitateak mugitzera eta behar bezala aurreratzera behartzen gaitu, estrategia eraldatzaileen bidez.



Gure balioak

TRANSGRESOREAK GARA, FRESKOTASUNA ERAKUSTEN DUGU ETA EZ DITUGU GURE BEZEROAK AXOLAGABE UZTEN. PERTSONEK ETA ERAKUNDEEK GUREKIN IZANDAKO ESPERIENTZIA ETA **BETETAKO HELBURUAK** SENTSAZIO POSITIBOEN BIDEZ GOGORATZEA GURA DUGU, JOLASTEN IKASTEN DENA EZ DELAKO INOIZ AHAZTEN.

ZERBITZU EZBERDIN ETA AURRERATUA ESKAINTZEKO KONPROMISOA HARTU DUGU, ETENGABEKO BERRIKUNTZARI EUSTERA BEHARTUZ, PRODUKTUAK ETA ZERBITZUAK HOBETZEKO AUKERAK ERA AKTIBOAN BILATUZ, GURE EZAGUTZAK ETENGABE EGUNERATUZ, **BERRIKUNTZAN AITZINDARI** IZATEKO.

ASTINTZEA

100

BERRIKUNTZA

85

EMAITZAK

95

KONFIANTZA

99

KOHERENTZIA

90

2030 BULTZADA: BALIO ERAKUNDEAK

Bezeroak eta proiektuak



ONU HABITAT
POR UN MEJOR FUTURO URBANO



Osakidetza



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Leioa
UDALA-AYUNTAMIENTO



amorebieta
etxano
UDALA AYUNTAMIENTO



Zamudio
Udala



Ajuntament de L'Hospitalet



AYUNTAMIENTO DE
LAREDO



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Deusto
Universidad de Deusto
Deustuko Unibertsitatea
University of Deusto

Mondragon
Unibertsitatea

UPC
UNIVERSITAT POLITÈCNICA DE CATALUNYA

innobasque

Bizkaia
talent

Bizkaia
beaz

BILBAO
Metropoli-30


Bilbao Ekintza

CÁMARABILBAO

[foar-se]

ASFEBE

KIROI ARLOARAKO IRITZI TALDEA
ASOCIACIÓN VASCA DE
GESTORES DEL DEPORTE kait.



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

LEA-ARTIBAI
AMANKOMUNAZGOA

AMURRID BIDEAN

Behargintza
Udalen Enplegu Zentroa
Centro Municipal de Apoyo al Empleo

FOROKOOP
kooperatiba-etzabaidarako foroa
foro de debate cooperativo

Orien
Cant
Te orientamos hacia el empleo

ametx
kultura, euskara eta kirolak

aje bask
Álava - Araba
jóvenes Empresarios - Enpresari Gazteak

Q-epea
Entidades Públicas Vascas
por la Gestión Avanzada

unicef

Cruz Roja

ZaBalketa



PARTAIDETZARAKO
LIBURU ZURIA
Eusko Jaurlaritza



HEZKUNTZA EZ-
FORMALAREN
ESTRATEGIA
**Bizkaiko Foru
Aldundia**



AISIA ETA
NERABEZAROA
EREDUA
ESTRATEGIA
Bilboko Udala



GAZTEENTZAKO
ESTRATEGIA
POLITIKOAK
Leioako Udala



EUROPAKO
HAUTESKUNDEEN
AURREKO
SENTSIBILIZAZIOA
**Europar Batasuna.
Europe Direct
Bizkaia**



GOBERNU
IREKIAREN
ESTRATEGIA
**Bizkaiko Foru
Aldundia**



OGP
KONPROMISOAK
**Eusko Jaurlaritza
Innobasque**



BIZKAIA DREAMS
LAB
**Bizkaiko Foru
Aldundia**



LANDA
GARAPENERAKO
PLANGINTZA
**Boliviako Gobernua
Eusko Jaurlaritza**



HERRITARREN
PARTAIDETZARAK
O UDAL
PROGRAMA
Gasteizko Udala



BERRIKUNTZARA
KO
NETWORKING-A
**Ajuntament
Hospitalet
UPC**



GAZTERIAREN
FORU
BATZORDEA:
POLITIKA-
TEKNIKOA
**Bizkaiko Foru
Aldundia**



TALENTIA
PROGRAMA
Bilbao
Metropoli 30
Bizkaia Talent



BERRIKUNTZA
PUBLIKORAKO
GAIKUNTZA
Ajuntament
Mollet del Valles



TRUKE
EUROPARRA:
GAZTE POLITIKAK
BEAZ



GAZTE DI BIZKAIA
ESTRATEGIA
Bizkaiko Foru
Aldundia



GJH
KONPROMISOAK
Innobasque



GAZTE
SAREGILEAK
Bizkaiko Foru
Aldundia
BBK



EUROPAKO HIRI
AGENDA 2050
Eusko Jauriaritza
Innobasque



MUGIKORTASUN ETA
JASANGARRITASUN
FOROA
Bilboko Udala



GAZTE DI 2030
Durangaldeko
Mankomunitatea



ALDE ZAHARREKO
MUGIKORTASUNEAN
PARTE HARTZEKO
PROZESUA
Bilboko Udala



NAZIOARTEKO
BATZARRA
European Cheese
Association



UDAL KIROLAREN
JARDUNALDIAK
KAIT



HIRI AGENDA
2050
Eusko Jaurlaritza



BIODIBERTSITATE
AREN FOROA
Eusko Jaurlaritza



EUSKAL HIRIA
KONGRESUA
Eusko Jaurlaritza
ONU Hábitat




GIZARTEGUNE
“ENPLEGU
POLITIKA
AKTIBOAK”
Bizkaiko Foru
Aldundia




HAURREN ETA
NERABEEN
AHOLKU
BATZORDEA
Ararteko



BERDINTASUN
BATZORDEA
Amorebieta
Etxanoko Udala



BULTZADA PLAN
ESTRATEGIKOARI
Asfedebi



AURREKONTU
PARTE-
HARTZAILEAK
Bermeoko Udala



AURREKONTU
PARTE-
HARTZAILEAK
Maruri Jatabeko
Udala




TALENTUAREN
MAPA
Urola Kostako
Udal Elkarte
Gipuzkoako Foru
Aldundia



ZORROTZA
GIZARTE ETA
HEZKUNTZA
PROIEKTU
KOMUNITARIOA
Eusko Jaurlaritza
Bilboko Udala




TURISMOARI
BURUZKO
HAUSNARKETA-
JARDUNALDI
Gipuzkoako Foru
Aldundia



ESTATU MAILAKO
EMAKUMEA ETA
KIROLA
KONGRESUA
Erakunde artekoa



HAURREN
ELIKADURARI
BURUZKO
HAUSNARKETA
JARDUNALDIA
**Osakidetza
Ararteko**



TXILEKO GIZARTE
ZIBILAREN PARTE-
HARTZEA
SUSTATZEA
**COS Erakunde
Solidarioen
Komunitatea**



ABIARAZTE
JARDUNALDIA
KIROLGI
**Gipuzkoako Foru
Aldundia**



KONTUEN
AURKEZPENA
Zamudioko Udala



ZAINTZATIK
PROSPEKTIBARA
Innobasque



KONFERENTZIA
PARTAIDETZA
POLITIKOAREN
KONGRESUA
**Valentziako
Unibertsitatea**



KONFERENTZIA
“ETORKIZUNA
GOBERNATZEN”
KONGRESUA
GIGGAP



PARTE HARTZEKO
ETA
GARDENTASUNERA
KO GIDA
**Eusko Jaurlaritza
Innobasque**



FOCUS 2018
EITB

Jolasten ausartzen zara?

ZAIN GAITUZU

TELEFONO-ZENBAKIA:
94.410.87.67

BILBO
Principe kalea 5, 6. solairua, 606-607
departamentua. 48001

VITORIA GASTEIZ
Bustiturri Kalea 9
01008



governance@coachandplay.es



Instagram **@teatrevesajugar**



linkedIN **Coach and Play**



Twitter **@governanceplay**



Facebook **coachandplay**

